

Gran manifestación ayer en Gasteiz bajo el lema · Lurraldearen defentsan, Euskal Herria bizirik! "

EUSKAL HERRIA BIZIRIK :: 20/05/2023

¡Los montes, los espacios naturales, la costa y el entorno rural de Euskal Herria no son espacios de conquista del capital!

[Euskara]

Arratsalde on, Gasteiz! Eskerrik asko, gaur hemen, gu hartzeagatik. Euskal Herriko txoko guztietatik etorri gara herria geu garela aldarrikatzera. Gure lurraldeak maite ditugula ozen esatera. Finean, herria geu gara, eta ez kapitala.

Gaur, hemen, landa-eremuko eta hiriko pertsonak elkartu gara bizirik mantentzen gaituzten horien defentsan: lurra, itsasoa, baserriak, basoak, errekek eta ibaiak, larreak, soroak eta mendiak. Ahaztu gabe bertan bizi diren izaki guzti-guztiak. Horiek herri hau egiten dutelako. Haiek gu egiten gaituztelako.

Eta, besterik gabe, manifestazio hau deitu dugun taldeok adostutako adierazpena irakurtzera pasako gara:

ADIERAZPENA

Azken aldi honetan natur-guneak eta landa ingurunea industrializatuko dituzten azpiegitura berri ugariren eraso bortitza pairatzen ari gara.

Gutziz kezkarria da ikustea gure lurraldera inbertitzaile handiak, berriz ere, badatozela ingurune naturala hondatzen jarraitzera, eta orain arte kontserbatu diren baliabide natural urriak lapurtzen segitzeko asmoz.

Trenbide proiektu eta azpiegiturak; zentral eolikoak edota fotovoltaikoak -eta, noski, horiei dagozkien banaketa-lineak-; erraustegiak, negutegi industrialak eta animaliak hazteko ustiapen intentsiboko fabrikak.

Euskal Herriko mapan, horiek guztiak agertzen dira; batzuk jada martxan dauden proiektuak dira, eta beste asko laster gauzatzekoak. Proiektu horiek eremu komunalak eta laborantzalurrak bereganatzen dituzte, gure lurraldea egituratzen duten eta bizitzari eusten dioten ekosistemen desagertzea ekarriz.

Proiektuon atzean asmo argia ikusten dugu: landa eremua eta bertako bizimodua apurkaapurka desagitea, gure mantenuaren oinarri diren komunitate txikiak eta baserriak desagerraraziz.

Enpresa handiek ezarritako ibilbide berbera eginez, politikari askok diote industrializazio proiektu handien aldean ingurune horien garrantzia eskasa dela eta ezkutatzen digute enpresa horiek direla, hain zuzen ere, politika suntsigarri horren onuradun bakarrak.

Horrela, diru publikoa patrika pribatuetara desbideratzen dute. Halaxe xahutu da eta oraindik xahutzen ari da horrenbeste diru AHT-an, erraustegietan eta zabortegi industrialetan.

Halaber, kostako eremuetan gertatzen ari diren txikizioak direla eta -kirol-portuak, dike berriak, kostaldearen artifizializazioa, besteak beste- denon aisialdirako tokiak eta ingurune natural izugarriak harri eta porlan azpian betiko galtzen ari gara. Kostaldeko herriek beren xarma galtzen duten heinean, promotore eta inmobiliarien etekinak esponentzialki igotzen dira.

Gertatzen ari dena ez da lapurreta ekonomikoa bakarrik; proiektu horiek pertsonen osasunari ere egiten diote kalte.

Hori gutxi ez eta Administrazioak lagundu egiten du legeria korporazio handi horien interesetara egokituz, eta baliabide publikoak eta espazio komunalak jartzen ditu haien esku.

Horren adibide dira Tapia Legea eta Nafarroa Garaiko homologoa. Udalei eta kontzejuei beren lurraldeen gaineko erabakiak hartzeko aukera kendu eta haien subiranotasuna urratzen dute.

“Trantsizio energetikoa” edo “deskarbonizazioa” bezalako terminoek beren esanahia galtzen dute egungo krisi ekosoziala eragin duten berberak behin eta berriz erabiltzen dituztenean. Jatorri fosileko energiaren ordez energia berriztagarria erabil daitekeela argudiatzen dute, inork beren merkatu-nitxo berria zalantzan jar ez dezan.

Merkatuaren logikak produktuen eta energiaren kontsumo neurrigabe eta zorora bultzatzen gaitu. Horren ondorio zuzena da transgenikoen inposizioa han eta hemen; zeintzuk mendekotasun berriak sortzen dituzten eta gure haziak askatasunez ereiteko gaitasuna kentzen diguten.

Baserri txikietako ereduaren desagertzea oso hurbil dugu. Lur emankorren erabilera aldatu egiten dutelako lege, eta etxalde txikiak baztertzen dira behin eta berriz. Baserriekin eta lurrarekin espekulatzeak era zuzenean egiten dio eraso herriaren elikadura subiranotasunari.

Historian zehar, landa eremuaren ondarea eta jakintza jarri dira, behin baino gehiagotan, politika desarrollisten mende. Trukean, bertako biztanleek bazterketa latza jasan dute, nahita ezarria eta aurretik programatua.

Natur ingurunea eta laborantza lurrak mantentzea ezinbestekoa da bizitza bermatzeko. Horiek hondatuz gero, atzera-bueltarik gabeko ondorioak izango dituzte ekosistema naturalek, landa-eremuko ekosistemek, eta baita ekosistema sozialek ere.

Hemen gaudenok ez dugu onartuko kontsumoa nabarmen murriztea eta produkzio sistema berregituratzea aurreikusten ez duen politikarik. Guk argi daukagu: produkzio sistema ondasun komunala hobetzera bideratu behar da.

Horregatik, natura benetan babestuko duen politika bat eskatzen dugu, gure habitata babestuko duen politika exijitzen dugu, inbertitzaileen diru goseari men egin egingo ez diona.

Energia eskuratzeko aukera unibertsala ekarriko duen politika nahi dugu: pertsona guztien beharrei erantzungo dien eredu energetiko deszentralizatu eta tokikoan oinarritua.

Erabaki politikoek komunitate osoa hartu behar dute kontuan, eta erabakiak herritarrok hartu behar ditugu, ez kapitalak.

Horregatik, garraio sistema soziala garatuko duten politikak nahi ditugu; eskala txikiko nekazaritza eta abeltzaintza ereduak sustengatuko dituzten politikak; energia berriztagarrien hedapena eta bioaniztasunaren kontserbazioa bateratuko dituzten politikak. Azken batean, natur-ondarea, arkeologia-ondarea, gizarte-ondarea eta kultura-ondarea kaltetuko ez dituen ereduak ekosoziala behar dugu.

Euskal Herriko mendiak, natur guneak, landa eta kostako inguruneak ez dira kapitalak konkistatzeko espazioak!

Bihotzez eskertu nahi dizkizuegu emandako babesak eta jasotako indarra. Denbora luze pasa dugu hau antolatzen, eta bidea ederra izan da.

Hemen, ordea, ez da bukatzen borroka hau. Borroka honen beste pausu bat izan da gaurkoa, hiriko biztanleak eta landa-eremukook batera eman duguna.

Gaurkoaren ondoren ere prest gaude egiten gaituen lurraren defentsan jarraitzeko, eta animatu nahi zaitugu zure eskualdeko taldera batzera, edota ez balego, taldea sortzera.

Bidean topo egingo dugulakoan,

GORA EUSKAL HERRIA BIZIRIK!

[Castellano]

¡Buenas tardes, Gasteiz!

Muchas gracias por acogernos hoy aquí. Hemos venido desde todos los rincones de Euskal Herria para reivindicar que nosotras somos el Pueblo. Para decir fuerte y claro que amamos nuestra tierra. Nosotras somos el Pueblo, no el capital.

Hoy, aquí, nos hemos reunido personas de la ciudad y del mundo rural en defensa de lo que nos mantiene vivas: la tierra, el mar, los caseríos, los campos de cultivo, los prados y los montes. Sin olvidar a todos los seres que en ellos viven. Porque todos ellos forman parte de este pueblo. Todos ellos forman parte de nosotras.

Y, sin más dilación, vamos a proceder a leer la declaración consensuada entre todos los grupos convocantes de esta manifestación.

DECLARACIÓN

Asistimos actualmente a una fuerte ofensiva de nuevas infraestructuras industrializadoras de espacios naturales y del entorno rural.

Es absolutamente alarmante cómo los grandes inversores desembarcan nuevamente en nuestro territorio para seguir esquilmando el entorno natural y saqueando los escasos recursos naturales que hasta ahora han sido preservados.

Proyectos e infraestructuras de comunicación ferroviaria, centrales eólicas o fotovoltaicas y sus correspondientes líneas de distribución, incineradoras, invernaderos y macrogranjas industriales, aparecen en el mapa de Euskal Herria, bien como proyectos próximos o como ya ejecutados.

Esta progresiva apropiación de espacios comunales y tierras de cultivo supone la práctica desaparición de los ecosistemas que vertebran el territorio y sostienen nuestras vidas.

Tras ello, vemos que hay una clara intención de propiciar un progresivo desmantelamiento del modo de vida rural que conlleva la desaparición de las pequeñas comunidades y caseríos, bases de nuestro sustento.

Muchos políticos insisten en la insignificancia de estos entornos frente al gran proyecto industrializador a través de una hoja de ruta marcada por las grandes empresas, las cuales son las únicas beneficiarias de esta política depredadora.

Esto no hace más que favorecer el trasvase de dinero público a bolsillos privados, como lo ha sido y está siendo el despilfarro del TAV o la creación de plantas incineradoras y vertederos industriales. Asimismo, las agresivas intervenciones que afectan al litoral (puertos deportivos, nuevos diques, artificialización de la costa, etc.) están provocando la pérdida de importantes entornos naturales, la pérdida de zonas de esparcimiento bajo el hormigón, y la pérdida del encanto de los pueblos costeros, con el único fin de incrementar exponencialmente las ganancias de promotoras e inmobiliarias.

No sólo se trata de un saqueo económico, estos proyectos también atentan contra la salud de las personas.

Por si fuera poco, la Administración colabora adaptando la legislación a los intereses de estas grandes corporaciones y pone a su disposición recursos públicos y espacios comunales. Ejemplo de ello son la Ley Tapia y su homóloga navarra, que desposeen a los Concejos y Ayuntamientos de decidir sobre sus propios territorios y quebrantan su soberanía.

Términos como transición energética o descarbonización carecen de significado cuando son utilizados de forma reiterada por los mismos que han provocado la actual crisis ecosocial. Son los mismos que argumentan que es posible sustituir la energía de origen fósil por energía renovable para que nadie cuestione su nuevo nicho de mercado.

La lógica del mercado nos empuja a un consumo frenético de productos y energía. Consecuencia directa de ello, es la imposición de los transgénicos los cuales, crean nuevas dependencias despojando la capacidad de culvar libremente nuestras semillas. Modificar tanto el uso de las erras fértiles como arrinconar las pequeñas granjas para destinarlas a la especulación, atenta contra la soberanía alimentaria y supone la desaparición de un modo de vida.

Las zonas rurales históricamente se han visto obligadas a poner a disposición de las políticas desarrollistas sus saberes y patrimonio. A cambio han sufrido una marginación intencionada y programada.

El mantenimiento del entorno natural y de las erras de cutivo es vital para garantizar la vida. Su destrucción tendría consecuencias irreversibles tanto en el ecosistema natural, como en el rural y social.

No aceptaremos ninguna política que no contemple una reducción significativa del consumo y una reestructuración del sistema productivo para que este sea orientado hacia el bien comunal.

Por ello, exigimos una política que proteja realmente la naturaleza, una protección del hábitat que no esté dictada por los caprichos inversores. Una política que permita el acceso universal a la energía mediante un modelo descentralizado y local que atienda las necesidades de las personas.

Necesitamos políticas que aborden una perspectiva; donde las personas decidan y no los intereses del capital; donde se impulse el desarrollo de un sistema de transporte social; donde se abogue por un modelo de agricultura y ganadería de pequeña escala y el despliegue de las energías renovables sea coherente con la conservación de la biodiversidad. Un modelo en definitiva que no atente contra el patrimonio natural, arqueológico y el acervo social y cultural.

¡Los montes, los espacios naturales, la costa y el entorno rural de Euskal Herria no son espacios de conquista del capital!

Gora Euskal Herria Bizirik!!!!

<https://eh.lahaine.org/gran-manifestacion-ayer-en-gasteiz>